



“Nafarroak oso Feng Shui txarra du”

Patxi Zaldieroa Huarte | Komikigilea

Zaldieroa deitzen du bere burua, baina errealitatea eta desioak nahasten ez dituen euskal gaitzaren begirale bakarrenetarikoa da.

FERMIN ETXEGOIEN

Ergatiboa zurekin...
Eta zure espiritutarekin!

Umoregilea zaitugunez, Marx anaia handia gogoratzuz has gaitezen: Historian bi aldiz gertatzen da dena: lehenean drama bezala eta bigarrenengan fartsa bezala...

Beste batek zioen tragedia fartsa (edo komedia) bihur dadin, tartean denbora igarotzea besterik ez dela falta. Gauza bera bi modutan esanda.

Zure lana ez ote da bata bestea bilakatzea?

Mmm... Bai. Baina kontua da nik ez dudala denborarekin jokatzeko ahal, nik gauzak egun batetik bestera egin behar ditut, gehienetan, eta asko baldintzatzen du horrek.

Euskañola irakaslearekin amesgaiztoa izan dut eta zera ziostan: “Gora Euskadi Ataskatuta!”

“Euskadi ataskatuta” kolonialisten helburua da, gurean, tamalez, errealitate gordina dena. Horrela nahi gaituzte, aurrera inongo urratsik eman gabe.

Feng Shui aditu Emilianoren ustez nola gelditu zaigu Nafarroa orain?

Nafarroak oso Feng Shui txarra du. Gauza guztiak edozein modutan eta ez dagozkien lekuetan daude jarriak, eta horrela ezin gara zoriontsu izan. Hori bai: “Dirua” erakartzeko eta irabazteko gauzak, oso ongi kolokatuak daude.

Aizu, The Organization-eko Asierrek nahasten al ditu Feng Shui... eta Sinn Féin?

Ez dut uste. Baina United Kingdom eta Espainiako Erreinua nahasten ditu, bai. Euskalherria eta Irlanda alboratu daitezke, baina beste bi horiek ez.

Reala bigarrenera jaitsita, Lotina-zaletasunari publikoki eustea posible ote?

Bai, ohartu zaitez Reala “zeharkako” gauza bat dela, bere garaian Osasuna izan zen bezala. Funtsan ni Lotinazalea naiz, Celtarekin, Espanyolekin, Realarekin... baina batez ere Lotinazalea. Hori bai, Realarekin “lotuagoa” sentitzen naiz, noski.

Iruñeko alde zaharreko zure argazki edo estampa biziki poetikoak... Egungoak izan arren, nolabaiteko oroimina dakarkidate: zer da iragana zuretzat?

Iragana gaur eta hemen dago. Nik iragana gizarte eredu honetan ikusten dut, alor guztietan. ETaren atentatu batetik hasita UPNren enegarren erasoraino. Triste da baina etorkizuna ere ez ote den beldur naiz. Adibide bat jartzearen, niretzat AHT, esaterako, iragana da. Concordea bezala. Alboratu beharreko filosofia txikitzaile bat. Abiadura: iraganeko kontu zahar ustel hori!

Sebastian apezpiku falangista iragana da?

Nik dakidanez izatez ez da falangista, baina adjektibo bezala bete-betean doakio. Eta bai, iraganak erditutako apaiza da. Jesusen aurretik sortutako ideietan eroso bizi da eta antzinako salda hartatik edaten du. Jesus Tenpluan sartu zenekoan hantxe zegoen jada Sebastian, sazerdotea zen. Kristo aurreko apaiza da.

Faltzes sorterrian nor da Zaldieroa?

Inor ez. Oso harreman gutxi izan dut amaren herriarekin. Baina izen politik aditu nituen nitaz ari zirelarik: *el nieto del Pepo* eta *el chico de la casa grande*. Pixka bat mitikoa ematen du, ezta? Etxe hartan jaio nintzen eta orain dela urte batzuk bota zuten. Inpresioa egin zidan, bizitza jada nire arrastoak ezabatzen ari da! ■